



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 21a

74. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Irurita-Elizondo saihebideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Sarrigurengo 273 etxebizitzaren obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafiko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Valtierra eta Arguedasko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Mendabiako saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Milagroko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Lodosako saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Azagrako saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, NA-7008 errepeidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik murriztu den produktu kimikoetarako eta laborategiko produktu etarako kredituen aurrekontua. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko” izeneko kontusailaren kargura UGT eta CC.OO sindikatuei 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Defentsa Ministerioak Ezkabako Gotorlekua laga dezan egin diren zuzemenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, telefonia mugikorreko antenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Irabazi asmorik gabeko erakunde eta enpresentzako laguntzak, aukera berdintasuna sustatze aldera” izeneko kontusaileko onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Istripuak Kontrolatzeko Batzordeko kide diren erakundeentzako konpentsazioa” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Lan Autonomoaren Nafar Kontseiluan parte hartzen duten erakundeentzako konpentsazioa” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, kontratazio egonkorra sustatzeko” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitatearen ordezkariak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneko arriskuei aurrea hartzeko programak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuaren hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Sindikatuentzako transferentziak, duten ordezkariaren arabera” izeneko kontusailaren kargura sindikatu bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuaren arteko hitzarmena” izeneko kontusailaren kargura sindikatu horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, etorkinen prestakuntza eta laneratzeko ekintza kofinantzatu gabeetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, nekazaritzako enplegu programetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, enpleguko egonkortasun programak, aitortu gabeko enpleguaren erregularizazioa, autonomoak eta ekintzaileak direla eta” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren onuradunei eta jasotako zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, jakiteko zer entitatek izenpetu dituzten hitzarmenak, zeinetarik Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “Entitateekiko hitzarmenak, informazioaren gizartea sustatzeko” izeneko kontusaileko gastua heldu baita. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren “UAGN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, laneratzeko orientabideko ekintzetarako” izeneko kontusailaren kargura erakunde horietako bakoitzari 2008an transferitutako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du babes ofizialeko etxebizitzak erostea finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenen bat duten edo halakoren bati atxiki zaizkion finantza-entitateei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du BOEn erosketa finantzatze aldera Nafarroako Gobernuarekin akordioa duten edo hitzarmenen batera atxiki diren finantza-erakundeei buruz (PES-020/09). Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitzaren alorrean babestekoak diren jarduketan finantzaketa-ildoak bideratzeko Nafarroako Gobernuaren lankidetzat-hitzarmenera atxiki diren finantza-erakundeak hauek dira:

NAFARROAKO KUTXA (CAN)  
CAJA LABORAL - EUSKADIKO KUTXA  
BANCO BILBAO VIZCAYA  
CAJA RURAL  
BANCO GUIPUZCOANO  
BANKINTER

BANCO DE VITORIA  
CAJA ESPAÑA  
BANCO POPULAR  
LA CAIXA  
CAIXA CATALUNYA  
BANCO ESPAÑOL DE CRÉDITO  
CAIXA GALICIA  
CAJA MADRID  
BANCO VASCONIA  
BANCO SANTANDER  
IBERCAJA  
CAJA RIOJA  
CAJA DE BURGOS  
BANCO GALLEGO  
KUTXA  
(GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA)  
BANCO PASTOR  
CAJA VITAL KUTXA  
BBK

Bestalde, hitzarmenaren kopia erantsi dugu; agiri horretan ageri dira klausulak eta sinatzaileek hartu dituzten konpromisoak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00020 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## Galdera, Irurita-Elizondo saihebideari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Irurita-Elizondo saihebideari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Irurita-Elizondoko saihebideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

a) 2009ko aurrekontuan kontusail orokor bat dago Nafarroa 2012 Planaren baitan; zehazki,

Errepide Sareko Esku-hartzeak Azkartzeko Planean.

b) Irurita-Elizondoko saihebideari dagokionez, une honetan eraikuntza-proiektua idazten ari dira; aurrez, proiektua jendaurrean ezagutzera emateko prozedura bideratu da, ukituko diren ondasun eta eskubideen berri emate aldera. Proiektuak Ingurumen Eraginari buruzko Adierazpena badu.

c) Kalkuluen arabera, 2009ko otsailaren amaiera baino lehen behin betiko onartua izanen da.

d) Jarraian, lizitazioa eginen da, eta, azkenik, espero da saihebidia 2009 eta 2010eko ekitaldian zehar eraikiko dela.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## Galdera, urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du urtarrilaren 22an Loitiko mendatean izandako trafiko-kolapsoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak galdera egin du 2009ko urtarrilaren 22ko goizean Loitiko mendatean neguko bidezaintzan gertatutakoari buruz. Hona hemen Herri Lan,

Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. eta 3. Arazoa sortu zen 07:32an, elur-ekaitz batean, elurra kentzeko makina bat blokeaturik geratu zelako Loitiko gainaren eta Judasen Bentaren artean, zirkulazioak eraginda. Horrek mendatea garbitzea eragotzi zuen. 07:45ean, arazoaz jabeturik, orduan buru zegoen ingeniari teknikoak erabaki zuen, Errepideen Kontserbaziorako Kontrol Zentrotik, elurra kentzeko bi makina gehiago bidaltzea. Makina bat 08:00etan iritsi zen, eta bestea 08:33an. 09:00etan, auto-ilarak egon arren, mendatetik pasa zitekeen, eta 09:30ean ez zegoen etenik zirkulazioan.

2. Errepideen egoerari buruzko informazioa emateko Nafarroako Gobernuak duen webguneak erregistratua duenez, 07:30ean gaztigatu zen Loitin derrigorrezkoa zela kateak erabiltzea. 08:00etan, webguneak jakinarazi zuen Loiti itxita

zegoela ibilgailuentzat. 09:00etan, berriz, jakinarazi zuen mendatea zabalik zegoela. Telefonoz emandako informazioa webgunean erregistratutako berbera da.

Webgunean jasotakoaren kopiak gehitu dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00040 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

---

## **Galdera, Sarrigurengo 273 etxebizitzaren obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Sarrigurengo 273 etxebizitzaren obraren proiektua eta zuzendaritza esleitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Sarrigurenaren 273 etxebizitza eraikitzekeko pro-

iektuaren eta obra-zuzendaritzaren esleipenari buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Pentsatzen dut galdera Sarrigurengo lehen faseko salneurri tasatuko 73 etxebizitzaren promozioari buruzkoa izanen dela; proiektua eta obra-zuzendaritza 2002. urtean esleitu ziren, eta exekuzio-akatsak suertatu ziren. Horri buruz, jakinarazten dut, bildu ditugun datuen arabera, esleipena Vinsako gerentziak bideratu zuela zuzenean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

## **Galdera, urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafikoko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du urtarrilaren 22ko elurteak Loitiko mendatean eragindako trafikoko-arazoak direla-eta Nafarroako Larrialdietako Agentziak jasotako telefono deiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du 2009ko urtarrilaren 22an elurra sortu zituen arazoaren inguruko zenbait gairi buruz (PES-039). Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- 2009ko urtarrilaren 22an, 06:23 eta 13:27 artean, 159 dei jaso ziren SOS-Nafarroa 112 Larrialdiak Kudeatzeko Zentroan, ekaitzaren eta negualdiak eragindako bide-egoeraren inguruan.

2.- Nafarroako Larrialdietarako Agentziak bideratutako baliabideek Loitiko mendatera heltzeko behar izan zuten denborari dagokionez, adierazi behar da, Herri Lanen Departamentuak egiaztatutako moduan, ibilgailuentzako eragozpenak 07:32an hasi zirela, zirkulazioa zela-eta elurra

kentzeko makina bat blokeaturik geratu zelako Loitiko gainaren eta Judasen Bentaren artean. Alde horretatik, gehitu behar da 07:45ean, arazoaz jabeturik, orduan buru zegoen ingeniari teknikoak erabaki zuela, Errepideen Kontserbaziorako Kontrol Zentrotik, elurra kentzeko bi makina gehiago bidaltzea. Makina bat 08:00etan heldu zen, eta bestea 08:33an. 09:00etan, auto-ilarak egon arren, mendatetik pasa zitekeen, eta 09:30ean ez zegoen etenik zirkulazioan.

Aurrekoa esanda, adierazi behar da, halaber, Larrialdiak Kudeatzeko Zentrotik Trafikoko Foruzaingoaren baliabideak koordinatu zirela, zehazki hamabi patruila, horietako bi Loiti-Ledea aldean, eta baita Trafikoko Guardia Zibilaren baliabideak ere, zonalde berean bi patruila paratuz.

3.- Lizarraldean koordinatutako denbora eta bitartekoei dagokionez, berriz, adierazi behar da Lizarrako barrutiko errepideetan elurra kentzeko lau makina izan zirela errepideetan jardunean, Foruzaingoaren zein Trafikoko Guardia Zibilaren laguntzaz. Testuinguru horretan, gorabeherarik esanguratsuen izan zen Lizarragako mendatetik pasatzeko derrigorrezkoa zela kateak erabiltzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du ingurumen zuzendari nagusiaren 617/2008 Ebazpenari buruzkoa –horren bidez, jendaurrean jartzen dira genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak–.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 26ko 617/2008 Ebazpenari buruz, genetikoki eraldatutako organismoekin eginen diren jardueretarako eskaerak jendaurrean agertzearen gainekoa (PES-29/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Estatu mailan, genetikoki eraldatutako organismoekin egiten diren jarduerak baimendu eta gartzeko baldintzak erregulatzen dituen oinarritzko araua da apirilaren 25eko 9/2003 Legea, genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) erabilera mugatua, borondatezko askapena eta merkaturatzea erregulatzeko araubidea ezarri duena; legeak, gainera, alor horretako Europako araudia estatuko zuzenbidean txertatu du.

Lege horrek honela definitzen du borondatezko askapena: “eraldatutako organismo bat edo organismo-konbinazio bat ingurumenen nahita sartzeari, berariazko neurririk hartu gabe herritarrekiko zein ingurumenarekiko kontaktua mugatzeko eta, horrenbestez, segurtasun-maila altua bermatzeko”.

Pentsa daitekeenez, GEOak merkaturatzeko edozein jarduera bazterturik dago, askapena merkaturatzeaz bestelako arrazoiengatik egiten denean. Askapen horiek egiten dira, besteak beste, gertakariak hautatzeko, frogaketa agronomikoak egiteko, hibridoak garatzeko, eraldaketaren interesa eta eraginkortasuna baloratzeko, merkaturatu aurreko saiakuntzak egite aldera behar beste

GEO edukitzeko edota ingurumenaren gaineko eragina lekuan bertan ebaluatzeko.

Galderak hizpide duen Ebazpenak borondatezko askapen-eskaerak jendaurrean jakinarazteko prozedura baimentzen du; ez ditu jarduerak baimentzen, baina aurrez egin beharreko izapide bat, jarduerok baimentzeko prozeduran derrigorrezkoa, bideratzen du.

Urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretuak, apirilaren 25eko 9/2003 Legea –genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) erabilera mugatua, borondatezko askapena eta merkaturatzea erregulatzeko araubidea ezarri duena– garatu eta gauzatzeko araubide orokorra onartzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du autonomia-erkidegoen eskumenekoa dela 9/2003 Legearen 4. artikuluan jasotako eginkizunak betetzea; hau da, autonomia-erkidegoen eskumenekoa izanen da beren lurraldean egiten diren eta estatuko administrazioak sustatu ez dituen borondatezko askapenak baimentzea, askapena merkaturatzeaz bestelako arrazoiengatik egiten denean.

Ekainaren 22ko 204/1998 Foru Dekretuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari esleitu zizkion genetikoki eraldatutako organismoen erabilera mugatuari eta borondatezko askapenari lotutako funtzioak, eta Biosegurtasuneko Foru Batzordea sortu zuen, foru administrazioaren erakunde arteko aholkularitza- eta partaidetza-organo gisa. GEOekin egindako jarduerak baimentzeko organo eskuduna, eskuмена Foru Komunitatearena denean, gaur egun Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua denaren titularra da; hala ere, aurrez horren berri eman beharko die erkidegoko zein estatuko biosegurtasun-batzordeei.

Galderak hizpide duen erabakia ez da inoiz hartua izan.

Foru Administrazioak, bere eskumeneko alorrean, GEOen gaineko Europako, estatuko eta erkidegoko araudia ezartzen du, “kasuz kasu” ebaluatuz eraldatutako organismo bakoitza eta egon daitezkeen arriskuak, eta ematen dituen baimenetan ezarriz beharrezkoak diren neurriak, organismo horiekin egindako jarduera bakoitzaren inguruabar bereziak behar bezala kudeatu ahal izateko.

Aurreko bi puntuek hizpide duten zentzu horretan, ez da txostenik egiten.

GEOekin egindako gure erkidegoko jardueri buruzko txostenak Nafarroako eta estatuko biosegurtasuneko batzordekideek taxutzen dituzte baimenak emateko prozesuan, eta txosten horietan oinarritzen dira organo eskudunaren ebazpenak, eskatutako jarduerak baimendu edo ukatzeko orduan.

Baimenak eman aurreko txostenek, baita ikuskapen zein jarraipenekoek ere, aintzat hartzen

dituzte GEO bakoitzak eragin ditzakeen arriskuak. Horrez gain, txostenetan ezartzen dira identifikatutako balizko arriskuak behar bezala kudeatu ahal izateko baldintzak, nazioartean baliozkotutako irizpide zientifikoei jarraiki.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Valtierra eta Arguedasko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Valtierra eta Arguedasko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Valtierra eta Arguedas arteko saihebideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren abenduaren 31ko 156/2007 Foru Aginduz onartu zen, teknikoki, Valtierra-Arguedasko sai-

hebidia, 2008ko urtarrilaren 23ko NAOren 10 zk.n argitaratu eta jendaurrean aurkeztua izan ondoren. Orain, dagokion eraikuntza-proiektua idazten ari dira. Zailtasun handiko proiektua da inondik ere, batik bat 9/2008 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatu duena, indarrean jarri zenetik. Izan ere, saihebidia Ebro ibaiak urez bete dezakeen eremuaren ingurutik doa, eta erregelamendu berriak baldintza oso zorrotzak ezarri ditu, saihebidia ingurunean txertatzea zailtzeaz gain proiektua garestituz.

Espero da proiektua martxoan onartuko dela behin betiko, eta ondoren obraren lizitazio-prozesuari ekinen zaio. Saihebidia 2009 eta 2010eko ekitaldietan zehar egingen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado



## **Galdera, Milagroko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Milagroko saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Milagroko saihebideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren urtarrilaren 23ko 2/2008 Foru Aginduaz onar-

tu zen, teknikoki, Milagroko saihebidia, 2008ko otsailaren 6ko NAOren 17 zk.n argitaratu eta jendaurrean aurkeztua izan ondoren. Orain, dagokion eraikuntza-proiektua idazten ari dira. Zailtasun handiko proiektua da inondik ere, batik bat 9/2008 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatu duena, indarrean jarri zenetik. Izan ere, saihebidia Ebro ibaiak urez bete dezakeen eremuaren ingurutik doa, eta Aragoi ibaiaren ibilgua zeharkatu behar du.

Espero da proiektua 2008ko martxoan onartu dela behin betiko, eta ondoren obraren lizitazio-prozesuari ekinen zaio. Saihebidia 2009 eta 2010eko ekitaldietan zehar egingen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Mendabiako saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Mendabiako saihebidia esleitzeko atzerapenari eta saihebidia egiteko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Mendabiako saihebideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren abenduaren 19ko 152/2007 Foru Aginduaz onartu zen, teknikoki, Mendabiako saihebidia, 2008ko urtarrilaren 18ko NAOren 8. zk.n argitaratu eta jendaurrean aurkeztua izan ondoren. Orain, dagokion eraikuntza-proiektua idazten ari dira.

Zailtasun handiko proiektua da inondik ere, batik bat 9/2008 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatu duena, indarrean jarri zenetik. Izan ere, erregelamendu berriak baldintza oso zorrotzak ezarri ditu ibai-ibilguen inguruan eraikitako azpiegituretarako.

Espero da proiektua 2009ko martxoan onartuko dela behin betiko, eta ondoren obraren lizitazio-

prozesuari ekinen zaio. Saihesbidea 2009 eta 2010eko ekitaldietan zehar egingen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Lodosako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Lodosako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Lodosako saihesbideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren otsailaren 19ko 13/2008 Foru Aginduaz onar-

tu zen, teknikoki, Lodosako saihesbidea, 2008ko martxoaren 7ko NAOren 31. zk.n argitaratu eta jendaurrean aurkeztua izan ondoren. Orain, dago-kion eraikuntza-proiektua idazten ari dira. Zailtasun handiko proiektua da inondik ere, batik bat 9/2008 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatu duena, indarrean jarri zenetik. Izan ere, erregelamendu berriak baldintza oso zorrotzak ezarri ditu ibai-ibilguen inguruan kokatutako azpiegituretarako.

Espero da proiektua 2009ko martxoan onartuko dela behin betiko, eta ondoren obraren lizitazio-prozesuari ekinen zaio. Saihesbidea 2009 eta 2010eko ekitaldietan zehar egingen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Azagrako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspeni buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Azagrako saihesbidea esleitzeko atzerapenari eta saihesbidea egiteko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Azagrako saihesbideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Saihesbidea jendaurrean aurkeztu zen Nafarroako Gobernuaren 2006ko urtarrilaren 9ko Akordioaz (12. NAO, 2006ko urtarrilaren 27koa), Ingurumen Eraginaren Ebaluaketa bideratzeko eta udalez gaindiko eragina duen proiektu sektorial gisa onartua izateko. Prozesu horretan, bi alternatiba proposatu dira: bata mendialdetik, eta bestea sail ureztatuetatik; azken horrek estimazio handiagoa izan du, eta hori da onartua izateko proposatu

dena. Jendaurreko aurkezpenaren ondoren, hautatutako alternatibari buruzko ingurumen-eraginaren adierazpenik ez zen egin, hori baino lehen uholde-arriskuari buruzko analisi sakonago bat taxutu nahi baitzen, beharrezkoa ote zen erabakitzeke.

Gerora, 2008ko urtarrilaren 16an, 9/2008 Errege Dekretua, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatu duena, onartu zen, eta urez bete daitezkeen zonaldeetan azpiegiturak eraikitzeke baldintza oso murriztaileak ezarri zituen. Errege Dekretua onartzeaz geroztik, proposatutako alternatiba legez eginezina da, zati handi bat goragotik, zubibide gisa, egin ezean; azken alternatiba hori, baina, ekonomikoki eginezina litzateke.

Ondorioz, proiektua birplanteatzen ari gara Udalarekin elkarlanean, baldintza berrietara egokituz. Horretarako, Ingurumen Eraginaren Ebaluaketa berria egin beharko da, eta proiektua ekonomikoki birdoitu, Errepideen III. Plan Zuzentzailearen (2009-2016) baitan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du NA-7008 errepidea Gorozin eta Zurukuain bitartean zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Gorozin eta Zurukuain arteko NA-7008 errepidea zabaltzeko eta hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

“Deierri ibarrerako sarbideak Gorozinetik barna hobetzea” proiektua Errepideen III. Plan Zuzentzailean jasota dago, eta NA-7008 errepidearen tarte hori hobetzean datza.

Proiektuaren hastapenetan, 2003an, Deierriko Udalak proiektuaren gaineko desadostasuna agertu, eta alternatiba bat proposatu zuen: errepide berri bat egitea, Santiago Bideko A-12 autobiatik abiatuta, Arandigoien inguruan, Zabal eta Arizalaraino helduko litzatekeena, Irantzu ibaiaren ibilguari jarraiki. Proiektuaren onuradun nagusia litzatekeen tokiko erakundeak Errepideen III. Plan Zuzentzailean ezarritakoaz bestelakoa den proposamen bat egin zuela ikusirik, proiektua ez zen aurrera eraman.

Oraindik orain, Deierriko Udalak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari adierazi dio proiektua aldezteko prest dagoela, Errepideen III. Plan Zuzentzaileak ezarritako moduan. Horrenbestez, administrazio-izapideak abian jarri dira proiektua garatuko duen laguntza teknikoa datozen hilabeteotan kontratatzeko. Proiektuaren gauzapena Errepideen III. Plan Zuzentzailean (2009-2016) programatuko da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du toki entitateei kirol instalazioetarako emandako laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du tokiko erakundeei kirol-instalazioetarako emandako laguntzei buruz (PES 26-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

2009. urtean zehar, tokiko 86 erakundek eskatu zituzten kirol-instalazioetarako laguntzak. Horietatik 82 udalak dira, eta 4 kontzejuek.

Zehazki, hauek izan ziren laguntzak eskatu zituzten udalak: Abartzuza, Ablitas, Allin, Agoitz, Arakil, Aranguren, Arbizu, Arguedas, Artaxoa, Aiegi, Barasoain, Barillas, Baztan, Bera, Berbintzana, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Buñuel, Caparroso, Zarrakastelu, Castejón, Cascante, Cintruénigo, Corella, Donamaria, Doneztebe, Egues,

Ergoiena, Lizarra, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranz, Eulate, Faltzes, Funes, Galar, Goizueta, Gesalatz, Uharte, Igantzi, Imotz, Irañeta, Izaba, Labaien, Larraga, Lekunberri, Lerga, Lerin, Lesaka, Ledea, Lodosa, Irunberri, Martzilla, Mélida, Mendabia, Miranda Arga, Murchante, Noain (Elortzibar), Obanos, Olazti, Erriberri, Orkoién, Oteitza, Iruña, Azkoién, Ribaforada, San Adrián, Tafalla, Tuterá, Ukar, Ultzama, Urrotz, Uterga, Uztarroze, Deierri, Valtierra, Viana, Alesbes, Atarrabia, Esa eta Zizur Nagusia.

Era berean, aipatutako laguntzak eskatu zituzten Larrasoaña, Legasa, Mendaza eta Arandigoién kontzejuek.

Emandako laguntzei dagokienez, 2008an 48 udalek jaso zituzten.

Hona udal horien zerrenda:

Ablitas, Allin, Agoitz, Arakil, Aranguren, Arguedas, Aiegi, Barasoain, Berbintzana, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Buñuel, Castejón, Cintruénigo, Doneztebe, Egues, Etxarri Aranz, Eulate, Faltzes, Funes, Galar, Gesalatz, Izaba, Labaien, Lerga, Lerin, Lodosa, Irunberri, Mélida, Mendabia, Miranda Arga, Obanos, Oteitza, Iruña, Azkoién, Ribaforada, San Adrián, Tafalla, Tuterá, Ultzama, Urrotz, Uterga, Uztarroze, Deierri, Valtierra, Viana eta Alesbes.

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## Galdera, gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gizarte bazterkeriaren gaineko neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera

egin du gizarte-bazterketari aurre egiteko neurriei buruz (PES 2-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak Departamentu honi eskatu dio aurtengoan gizarte-bazterketari aurre egiteko programetan laguntza-eskariak izan dezaketen hazkunderaren aurreikuspena eman dezala.

Eskatu zaigunaren moduko proiektio bat egiteko, ezinbestekoa da laguntzek azkenaldian izan duten bilakabidea aintzat hartzea.

Jarraian doan informazio-taulan, 2007an eta 2008an jaso ditugun Oinarrizko Errentaren eskari- en bilakaerari buruzko datuak ageri dira.

	2007	2008
Eskarien kopurua	4.185	5.799
Emandakoak	3.275	4.455
Ukatutakoak	270	248
Izapidetzen	0	145
Emandakoen zenbatekoa	6.427.885,78	10.051.195,09

Urtetik urterako alderaketa eginez gero, ondorio hauek aterata litezke:

– 2008an, oinarrizko errentaren eskariak 2007koak baino %38,56 gehiago izan dira: 5.799 orain, 4.185 lehen. Datu hori urte horietako laugarren hiruhilekora aldatuz gero, ohartuko gara 2008an 2.006 eskari jaso direla, eta 2007ko aldi berean, berriz, 1.185; beraz, 821 espediente gehiago jaso dira, hau da, kopurua %69,28 hazi da.

– 2008 osoan, eskariak %36,03 hazi dira.

– 2008an ordaindutako oinarrizko errenten guztizko kopuruei dagokienez, hazkundera 3.623.309,31 eurokoa (%56,36) izan da 2007. urtearekiko.

2008an oinarrizko errentaren eskariak gora egiteak, hazkundera bizi dugun krisialdirekin duen zerikusia eta 2009rako dauden aurreikuspenek hainbat gogoeta-bide eragiten dituzte, horien artean hauak:

– Krisi honen agerpen kezagarrirenetako bat da egoera normalizatuan bizi diren sektoreak era-

saten ari dela, eta enplegua galtzeak gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua ekar dezakeela. Langa-beziak pobrezia, etxea galtzea, gatazkak familiarekin eta gertuko gizarte-ingurunearekin eta abar ekarri ditu.

– Diru-laguntza sozialen eskariak izan duten hazkundera zuzeneko zerikusia du lana galtzearekin: pentsatzekoa da enplegua indarberritzeak diru-sarrerak bermatzeko eskarien gorakada geldituko duela, pertsonak beren lanaren bidez lortuko baitituzte diru-sarrerak.

– Datozen hilabeteotan, diru-laguntza sozialen eskariak gora egiteko joera hori areagotu daiteke, enplegua galdu duten pertsonak langabezia-sariak, laguntzak, Laneratzeko Errenta Aktiboak eta abar agortu ahala.

Krisiaren konplexutasunak ezinezkoa egiten du hazkunderako joera horretan izanzen dituen eraginari buruz iragarpen fidagarri bat egitea. Gure ustez, krisia eta eskarien hazkundera batera joanen dira, eta egoera hori enplegua indarberritu artean mantenduko da.

Zentzu horretan, nabarmendu behar da oinarritzko errenta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako prestazio bermatua dela, eta zenbatekoak haziz joan dira hain zuzen ere Gobernu honek 2011.

urterako oinarritzko errenta LGSrekin %100ean parekatzeko hartu duen konpromisoaren ondorioz.

Gaur egun, LGSren %90 ematen da, honela:

Pertsonak	LGSren portzentajea	Oinarritzko Errenta
1	%90	561,60
2	%110	686,40
3	%120	748,80
4	%130	811,20
5	%140	873,60
6 edo gehiago	%150	936,00

Bestalde, eskarien eta laguntza behar duten familien hazkunderako joera egiaztatu eta berretsi ondoren, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak lantalde sozial bat sustatu eta eratu du krisiaren jarraipena egiteko. Lantaldearen buru ni neu izanen naiz, kontseilari naizen heinean, eta beste pertsona hauek ere osatuko dute:

- Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiko bi ordezkari (hori-etako bat Nafarroako Mendekotasun Agentziakoa).
- Nafarroako Lan Zerbitzuko ordezkari bat.
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko ordezkari bat.
- Etorrinak Artatzeko Bulegoko ordezkari bat.
- Nafarroako Alderdi Sozialistako bi ordezkari.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko (NUKF) bi ordezkari.
- Caritasko ordezkari bat.
- Gurutze Gorriko ordezkari bat.
- Pobreziaren aurkako Nafarroako Sareko ordezkari bat.
- Elikagaien Bankuko ordezkari bat.
- Gaztelan Fundazioko ordezkari bat.
- CCOOren ANAFE Fundazioko ordezkari bat.
- UGTren Gida Zentzoko ordezkari bat.

Taldea helburu jakin batekin sortu da: gaur egun bizi dugun egoerak gure gizarteko talde ahulenetako batean, gizarte-bazterketa pairatzen

dutenean artean, nola eragiten duen aztertzea, berariazko jarraipena eginez.

Batzordea helburu orokor hauekin sortu da:

Alde batetik, gaur egun bizi dugun egoerak gure gizarteko talde ahulenetako batean, gizarte-bazterketa pairatzen dutenean artean, nola eragiten duen aztertzea, berariazko jarraipena eginez.

Bestetik, sortzen diren egoerak ahal den neurrian arindu eta zuzentzeko neurriak proposatzea, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak azkenean baztertuak izan daitezzen eragozteko.

Alor honetan ezagutza eta esperientzia sakona duten zenbait entitate eta elkarte baditugu Nafarroan. Administrazio publikoak ezin ditugu baztertera utzi horiek eskain ditzaketen jakinduria eta errealtateari buruzko gertuko ikuspegia. Guztion jarduna bateratu eta koordinatzen badugu, hartuko ditugun neurriak askoz egokiago eta eraginkorragoak izanen dira.

Kontseilari honek zubi-lana egingen du batzorde honen eta Krisiaren Jarraipen Batzordearen artean; azken batzorde hori Nafarroako Gobernuaren zenbait departamentuk eta eragile ekonomiko zein sozialek osatzen dute.

